

## KILOMETROAK 2010 &gt;



Joaldunek kaleak alaitu zituzten egun guztian zehar.



Milaka lagun bildu ziren kontzertuetan.



Ibilbidean jende andana ikusi ahal izan zen goizean.

**AGUSTIN MIGELTORENA**  
PASAIA-LEZO LIZEOKO ZUZENDARIA

## “Ikastola berria datorren ikasturterako zabaltzea espero dugu”

**Agustin Migeltorena eta zuzendaritzako gainerako kideak alde batetik bestera zebiltzan atzo jendea agurtu, laguntza eskertu, elkarrizketak eskaini eta antolakuntza lanei erreparatu. Hilabete-tako lanaren emaitza jasotzeko eguna zen eta dena bikain ateratzea nahi zuten**

**E. ARRAZOLA**

**LEZO. Zein helbururekin antolatu duzue aurtengo Kilometroak?**

Gaur egun, 1.200 ikasle dauzka ikastolak eta Lezon Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskaintzarik ez daukagunez, ikasleak Pasai Donibane, Pasai San Pedro eta Pasai Antxora joan behar izaten dira ikastera. Guraso askok herrian gelditzeko nahia adierazi ziguten eta horretarako eraikin berria beharrezkoa genuen.

**Eraikuntza lanak hasi al dira? Non kokatuko da eskola berria?**

Lanak martxoan hasi ziren eta datorren urteko kurtsorako amaitzea espero dugu. Ikastola berria

futbol zelaiaren ondoan kokatuko da.

**Zenbat kostatuko da proiektua? Jaian lortutako diruarekin finantziatuko duzue?**

Bi milioi luze kostatuko da, beraz ezinezkoa izango litzateke gaur lortutakoarekin soilik ordaintzea. Kilometroaren bildutakoak lagundu egingo du, baina gure auzolana ez da horrenbestekoa. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere jasoko du.

**Zenbat ikasle hartuko ditu eskola berriak?**

Eskaeraren arabera izango da, baina hiru lerrotik lau lerroa pasatzea da asmoa. 0 eta 6 urte bitarteko ehun bat ume izango ditugu, gutxi gora behera. Gainera, Haur Hezkuntzako lerro bat Lezora eka-

rriko dugu txikiak herrian gera daitezten.

**Zenbat urte daramatzazu zuzendari moduan?**

Hamaika urte.

**Orduan, ez zinen 1997. urteko Kilometroaren prestaketa lanean aritu?**

Urte hartan ez nintzen zuzendaria, baina zuzendaritza taldean nengoen lan egitea tokatu zitzaidan. Orduan eraikin nagusia zaharberritu genuen, baina horretaz gain, Kilometroak barne kohesioari bultzada emateko balio izan zigun. Demografia aldetik hazkunde negatiboa zegoenez, ikasle kopurua jaitsi egin zen eta ondo etorri zitzaigun horrelako festa antolatzea eta protagonistak ginela sentitzea.

**Nola joan dira aurtengo prestaketa lanak?**

Auzo lan handia eta antolaketa izugarria eskatzen du. Baina egia da inertzia ere badagoela, izan ere urtero antolatzen den zerbait da Kilometroak eta jendea normalean inplikatu da.

**Babes handia jaso duzue?**

Euskaldunak badugu auzolanean aritzeko joera, elkarren artean



Agustin Migeltorena zuzendaria eta Junkal Mintegia lehendakaria.

laguntzeko ohitura, alegia, eta hemen nabaritu dugu. Gurean, agian herri txikia garelako edo, jendea asko inplikatu da eta pozik gaude.

**Balorazioa egiteko goiz xamar da,**

**baina zein da lehenbiziko impresioa?**

Goiz da horretarako, baina mugimendu handia ikusten da eta esan digute kanpotik jendetza etorri dela.

**BERAK ESANA**

**“Gurean, agian herri txikia delako edo, jendea asko inplikatu da prestakuntza lanetan eta pozik gaude”**